

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Karmen Iraola Idiakez

*Donostia,
Gipuzkoa
(1922)*

Aurkibidea



Biografia



Kaiko arkupeetako lehen etxean jaioa, hiru ahizpatan zaharrena da. Aiton-amonekin bizi izan zen urte batzuetan, gurasoekin gero, baina kaian betiere. Ama moilakoa zuen, eta aita mutrikuarra; tolderoa zen: toldoak egiten zituen. Karmen Elizarango mojangana joan zen eskolara, 14 urte bete arte. Gerra sasoian Getariara joan ziren babes bila, itsasontziz; aitona eta osabak arrantzaleak ziren. Bueltan, sonbreru-denda batean errekadista ibili zen. Eta gero Nerecan inprentan, Grosen, 24 urterekin ezkondu zen arte. Hiru seme-alaba ditu. Ezkondu ostean senarraren familiako ontziarentzat - amunarriztarren Glorioso San Roke- sareak konpontzen hasi zen. "Pixonera" ere izan zen, arrain banaketaren arduraduna.

Zintak

DON-054

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-11-06
- **Iraupena:** 81 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Agirre, Eli

Pasarteak

1. Kaian jaioa

- **Erref:** DON-054/002
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:00:29. **Bukatu:** 00:03:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Kaia jaio zen, arkupetako lehen etxean. Tia eta ak egoten ziren han, kaxak, sareak... Jatetxerik ez zegoen lehen. Denda bat zegoen, Peperena. Beste ezer ez zegoen. Sotoak zeuden. Etxeak arroka gainean daude eginda. Hiru bizitza izaten ziren; lehenengoan jaio zen. Kaiko hiru etxetan bizi izan da.

2. Aitona-amonekin

- **Erref:** DON-054/003
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:03:55. **Bukatu:** 00:06:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Hiru ahizpatan nagusia da. Aita-amak gurasoen etxera ezkondu ziren, eta han jaio zen. Ama bigarrenaz haurdun geratzean beste etxe batera joan ziren bizitzera gurasoak; aitona-amonekin geratu izan bera, aldi baterako. Zenbat bizi ziren han.

3. Umetako oroitzapenak

- **Erref:** DON-054/004
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:06:07. **Bukatu:** 00:09:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako oroitzapenak. Aitonarekin gogoratzen da, intxaurrak txikitu eta nola ematen zizkion. Izebak egunero gurasoen etxera bidaltzen zuen, ahizpekin jolastera. Sokasalto. Ama beti gainean zegoen.

4. Moilan igerian eta toldogintza

- **Erref:** DON-054/005
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:09:21. **Bukatu:** 00:12:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Txikitatik zekiten igerian, moilan goitik salto egiten zuten. Gerrian kortxoak jarrita ikasten zuten. "Perrita al agua" ere egiten zuen: txanponak hartu. Neska-mutilak ibiltzen ziren horretan. Bainujantzia amak egiten zien. Aitak toldoak egiten zituen, eta tela lortzen zuen amak. Makinak etxean zeuden. Etxean egiten zituen toldoak aitak. Hondartzako toldoak ere konpontzen zituen, neguan: jaso, garbitu, konpondu... 2-3 familia zebiltzan toldogintzan. Brunet lantegitik ekartzen zuten oihala.</p>

5. Amaren familian, arrantzaleak

- **Erref:** DON-054/007
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:13:02. **Bukatu:** 00:14:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

Amak aitari laguntzen zion toldogintzan. Ez zen moilako lanetan ibiltzen. Aitonak motora txiki bat zuen, eta osabak arrantzara joaten ziren. Arraina egunero zuten. Ahizpak amari esan ziona.

6. Aita, Mutikun jaioa

- **Erref:** DON-054/008
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:14:43. **Bukatu:** 00:15:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ama Donostiakoa zen, moilakoa, eta aita mutrikuarra. 19 anai-arreba ziren, bera txikiena. Zaharrenak Donostia aldera etorri ziren, eta beraiekin ekarri zuten, hiru hilabeterekin.

7. Eskolan erdaraz, etxean euskaraz

- **Erref:** DON-054/009
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:15:51. **Bukatu:** 00:18:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolara Elizaranera joan zen, mojetara. Dena neskak ziren. Mutilak fraidetara

joaten ziren, San Juan kalera: Los Angeles. Moja denak erdaldunak. Sor Aurelia. Euskara ez du galdu aitararen agindua hori zelako: etxean euskaraz. Ahizpak Ensancheke eskolan ibili ziren.

8. Ikastolak

- **Erref:** DON-054/010
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:18:29. **Bukatu:** 00:20:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Muñoaren ikastolara ere joan zen, baina oso gutxi. Elbira Zipitria ezagutu zuen. Zorrotza zen, ez zuelako nahi euskara galtzea. Ikastola txiki bat ere egon zen etxe gainean, Ixiar Arzelus andereñoarena. Hori, gerra ondoren.

9. Egunero mezara

- **Erref:** DON-054/011
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:20:21. **Bukatu:** 00:23:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

<p>Ez da gogoratzen larunbatetan eskolara joaten ziren, baina mezara bai, egunero. 10:00etan izaten zen igandeetan. Abestu egiten zen, Santa Marian. Jaunartzea Errepublika aldarrikatu zen egunean egin zuen. Don Agustin Enbil zen parrokoa.</p>

10. Jaunartzea, erdi ezkutuan

- **Erref:** DON-054/013
- **Iraupena:** 0:04:28. **Hasi:** 00:23:17. **Bukatu:** 00:27:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak

Laburpena:

<p>Jaunartzea ez zuten Santa Maria elizan egin, Santa Martan baizik. Ezkutuan. Bulebarrean, La Valencianeta izozki denda inguruan zeudela, ikusi zuten jendea banderekin, Errepublikaren alde oihuka. Laguna abesten hasi zen.</p>

11. Gerra nola hasi zen

- **Erref:** DON-054/014
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:27:45. **Bukatu:** 00:30:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

Beti izan da errepublikanoa, errebelde samarra, baina gurasoak ez ziren ezertan sartzen. Gerra nola hasi zen. Aita Gaztelupeko kidea zen, eta etxerakoan komentatu zuen CNTn mugimendua zegoela. Hurrengo egunean, tiro-hotsak.

12. Aquariumean lotan

- **Erref:** DON-054/015
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:30:32. **Bukatu:** 00:34:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Telefonia beti izan dute etxean, aitaren lanarengatik. Bigarren bizitzan bizi ziren, eta behera jaitsi ziren, tiroen beldur. Han egon ziren denak, gazteak pasilloan eserita. Gobernu Militarretik Gaztelura botatzen zituzten tiroak. Aquariumean egunak egin zituzten familia batzuek, lurrean lotan.</p>

13. Elizan lotan

- **Erref:** DON-054/016
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:34:37. **Bukatu:** 00:36:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Aquariumetik etxera joan ziren, eta gero Santa Mariara, bonba bat bota zutelako moilan. Gasolindegia zegoen moilan. Elizan bi gau egin zituzten, bankuetan. Gasolindegia non zegoen.</p>

Transkripzioa

- Eta gero Donostiya hartu zuten.
- Gero, gero este bueltatu giñan etxera eta berriz Santa Marira jun giñen'de bai, momentu batian Santa Marira, zergatik, este, bonba bota zuten moillan, bonba bat abioiyak bota zun moillan.
- A bai e?
- Bai, bai, bai, eta gasolinera bat zegon. Zu goatzen zea? Ordun gasolinerak izaten zian zera batzuek bezela, armariyo batzuek bezela, hola

aparatua zekaten barruan eta gorritz pintatuak. Eta abioi hoiak ikusi zuten gorritz pintatua eta bonba bota zuten. Eta ez zun ikutu baiñan aurreko eskaillera bai, ureta erori zan bonba. Eta ordun Santa Marira jun giñan. Eta handik bi gau o hola'de bai, nik Santa Mariko elizan lo in det, bankuetan.

- Bankuetan?
- Hombre. Eta ordun ba...
- Ta gasolinera nun zeon ba, ze tokitan?
- Ba beira, ni jaiyo nintzan aldamenian. Arkupian, ba, lehenbiziko [...] da hamar, ni jaiyo nintzana. Eta, este, aldameneko zerian, hola, este, hola, "o sea", hamar eta hamaikan tartian.

14. Getariara ihesi

- **Erref:** DON-054/018
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:36:50. **Bukatu:** 00:38:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Bonba arriskuarengatik, Santa Mariara. Eta gero osabarekin Getariara joan ziren ontzian; familia zuten han. Donostiara sartu zirenean etorri ziren bueltan. 14 urte zituen.

Transkripzioa

- Eta hor zeon, horra nahi zuten bota eta uretara erori zan.
- Erori zan, bai, bai, eta ordun ba ya zea arriskua zan. Eta hola.
- Eta Santa Marian lo ein zenuten?
- Bai, beste egun pare bat, eta gero bi osabak barkua zuten, eta etorri zan nere amen anaiya eta esan zion, "Getaira guaz, este, nahi badezute etorri". Eta hartu eta... familiya genun Getaiyan e? Eta hartu, danak sartu giñan barkuan, eta Donostitik Getaira. Eta han, ya Donostira sartu zienian, etorri giñan berriz.
- Ta zenbat denbora in zenuten?
- Han ez dakit, gutxi e? Zenbat? Gutxi, nik uste det hillebete ez genula ingo.
- Eta ze gogoratzen dezu han Getariyan?
- Ba Getariyan dakat nik zea bat, umia nintzan, hamalau urte nitun, eta han ez nun nahi gelditu nahi, ta jun giñan ezagun baten etxea. Eta nere osaba ta izeba jun zien beste bat familikuak genitun'de bai. ze nere aitona getaiarra zan, Getaian jaiyua zan.

15. Getariako pasadizoa

- **Erref:** DON-054/019
- **Iraupena:** 0:05:19. **Hasi:** 00:38:20. **Bukatu:** 00:43:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Txipiroitara joan ziren osaba-eta, Getarian zeudela. Ontzi batek metraila jaurti

zuen, eta gudariak erantzun egin zieten, lehorretik. Uretara salto egin zuten. Getarian gizon bakarra sartu zen, Adarraga. Donostiara bueltatu zirenean, Getarian izandako ontzia ezagutu egin zuen aitak.

16. Errekadista moduan lanean

- **Erref:** DON-054/021
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:43:57. **Bukatu:** 00:46:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Getariatik bueltan, lanean hasi zen, sonbreru dendan errekadista. Narrika kalean dago oraindik ere (ikus mapan): Leclercq. Pezeta bat irabazten zuen egunean. Kapelak entregatzen. Nerecan inprentan ibili zen gero, ezkondu arte. Tebeoak, egutegiak... Grosen zegoen.</p>

17. Nerecan inprenta

- **Erref:** DON-054/022
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:46:55. **Bukatu:** 00:51:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Txofreko zezen-plaza egin gabe zegoen artean. Oblaten komentua zegoen han; neska gaiztoak sartzen ei zituzten. Ospitalea ere bazegoen. Nerecan enpresa handia zen, goizeko bostetan joaten ziren, emakume eta gizonak. Tebeoak josi makinetan, paketeak egin... Doblatsu makinek egiten zuten. Makina handiak ziren. Flechas y Pelayos aldizkaria. Egutegiak nolakoak ziren, takoak. Marrazkilari alemaniarrek zeuden goian.</p>

18. Sareak josten I

- **Erref:** DON-054/024
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:52:00. **Bukatu:** 00:55:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Plantxak goitik ekartzen zituzten, prestatuta. 16 urterekin hasi zen Nerecanen. 24 urterekin utzi zuen, ezkontzeko. Neska-mutilak jaio zirenean, sareak josten hasi zen. Amak bazekien zerbait, baina koinatarekin batez ere. Egurrezko orratza.

19. Sareak josten II

- **Erref:** DON-054/026
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:55:32. **Bukatu:** 00:59:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak

Laburpena:

Hari berezia erabiltzen zen sareak josteko. Efectos Navales dendan erosten zen. Senarrak Kanpandegi kalean egiten zuen lana, arrantzarako gauzak saltzen. Antxoen eta sardinen sareak josten zituzten, txikiak. Handiagoak Pasaian josten zituzten gizonek. Sareak konpontzeak dituen zailtasunak.

20. Sareak josten III

- **Erref:** DON-054/027
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:59:25. **Bukatu:** 01:02:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak

Laburpena:

Mantala, goraizeak eta orratza eramateko. Harien lodiera. Saregile batekin itsasontziko nahikoa da. 09:00etatik 13:00etara egoten ziren, eta gero 15:00etatik 19:00etara. Batzuetan etxera bazkaltzera ere ez, bukatu arte lanean. Non egoten ziren. Etxe bakoitzetik bi-hiru.

21. Hamabost bat ontzi arrantzan

- **Erref:** DON-054/028
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 01:02:54. **Bukatu:** 01:07:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

Arrantzan askoz ontzi gehiago ibiltzen ziren. Mari Carmen, Joxe Benito, Torrekua, San Roke... 15 bat izango ziren. San Roke zen etxekoa, aitaginarrebaren ontzia zen, amunarritzarrena. Senarraren lau anaia ibili ziren arrantzan. Gerra garaian, alemaniarrek libre utzi zuten Frantziako uretan arrantza egitea. Negu hartan irabazi handiak izan zituzten ontziekin. Izugarritzko hotza ere pasatu zuten.

22. "Pixonera" lanetan

- **Erref:** DON-054/029
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 01:07:03. **Bukatu:** 01:10:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

<p>Antxoa freskoan bidaltzen zen Madrilera, jelaekin. Pasadizo bat kontatzen du. Bidean ez zen hondatzen. "Pixonera" ibili zen, arraina saltzen eta saldutakoaren berri Kofradiari ematen. Bentera. Benta hastean, txilina jotzen zen. Kaxaka saltzen zen.</p>

23. Sareak tindatu beharra

- **Erref:** DON-054/031
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 01:11:15. **Bukatu:** 01:12:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Euskaraz bazekien jendeak, baina erdarara erraz jotzen zuten. Sareak Terexak tindatzen zituen. Nailonezkoak hasi zirenean, tindatuta etortzen ziren; aurretik, kotoizkoak. Tiñetan.

Transkripzioa

- Euskeraz bazekin jendiak? Esan dezu.
- Bai, bai, "lo que pasa que" erderara juten giñan oso errex, oso errex.
- Gizonen artian gehio iten zan emakumeen artean baiño ala antzeko, hor moillan?
- Hizkuntzan, ba, berdin, berdintsu.
- Berdintsu?
- Bai.
- Eta sariak garai baten tindatu iten zian, ez?
- Bai, tintatu bai.

- Ta nork iten zun lan hori?
- Andre bat, Terexa zun izena, ta harrek tintatzen zitun. Ta geo guk. Baiñan zea zan e? Oso lan txarra.
- Lan txarra. Ez, gero nailonezkuak hasi zianian tintatuak etortzen zian, ya ya bere koloriakin etortzen zian.
- Eta aurretik zuek?
- Aurretik algodoizkuak zianian, ba pieza tintatzen zenun.
- Eta nola tintatzen zan, nun edo...?
- Ba tiñan, tiña batzuetan tinta jarri. Nik ez dakit, hori ez naiz, ez det in.
- Eta gero lehortu in behar zan?
- Bai, legortu, legortzen jarri ta yasta.

24. Arraina lehorrera

- **Erref:** DON-054/032
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 01:12:36. **Bukatu:** 01:14:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

<p>Arraina deskargatzeko "milotarrak" erabiltzen ziren. Neurria erabiltzen zen, 20 kilo. Neurritik tiñara, eta handik kaxetara. Egurrezko tiñak. Neurritik zuzenean kaxara ere bai; erosleak botatzen zuen jela. Jelatokia zegoen.</p>

Transkripzioa

- Ta ze erabiltzen zan arraia eramateko toki batetik bestera?
- Zea, millotarrak.
- Millotarrak?
- Millotarrak, bai eta han geo jartzen zan zera bat, neurriya, eta hura bete eta hainbeste neurri botatzen zan eskatzen zun neurriyak.
- Ta zenbat, zenbat kilo zan neurri bakoitza?
- Hogei uste det.
- Hogei kilo?
- Hogei kilo, bai.
- Eta, millotarra nolakoa zan, otar bat, [minbrezkoa]?
- Millotarra zan, hau bezela baiñan haundiya bezela, hau, hauxe, baiño hola, zabalo klaro. Eta erdiyan zekan zera bat, heltzeko, eta gizonak ematen zuten hola.
- Bakoitzian, esku bakoitzian bat?
- Bai.
- Orduan karratuak zian?
- E?
- Karratuak zian orduan, kuadrauak?
- Bai, bai, hola pixka, pixka forma gabe, bai.
- Eta gero kajak eta hortik, neurritik kajara?
- Neurritik, neurritik tiñara, ta gero andriak tiñatik kaja, kajara.
- Eta tiñak nolakuak zian?
- E?
- Nolakuak ziran tiñak?
- Tiñak? Hola haundiyak, egurrezkuak, bai.
- Eta hortik?

-Bai, kajeta, bai.
 -Kajetara, ta izotza ta nork jartzen zun?
 -Bueno, este, batzuetan, este, neurritik botatzen zan kajara direkto, eta
 kaja bakoitzea, zea, erosi zunak, erosten zunak botatzen zun, zea, izotza.
 Osea, ya tiña gabe ta ezer gabe, ya geo azkeneko, azkeneko aldian zea,
 lehen-lehen iten zan tiñakoa, baiñan gero, ya kaja direkto, bota hola eta
 kapa bat zera bota, ta yasta.
 -Eta izotza nundik ekartzen zan?
 -Hor egoten zan, zera, hor zegon jela, jela-tokiya.
 -Jela-tokiya hor bertan zeon, baiña ez zan ekartzen kanpotik, "Cervezas el
 Leon"etik edo?
 -Bueno baiño hori ez dakit noiz, baiñan hemen aspaldi zegon, zea, jela-
 tokiya. Ta juten ziñan ta direkto hartzen zenun jela.
 -Eta gero kamioietara?
 -Bai, bai, direkto, ["camion"] eta martxa.

25. Antxoak salmueran

- **Erref:** DON-054/033
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 01:14:59. **Bukatu:** 01:15:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

<p>Arkupetan andreek salmueran jartzen zuten arraina, baina gero
 desagertu egin zen. Jelaren ordeaz, gatza eta ura. Handik kaxetara.</p>

Transkripzioa

-Eta hor arkupetan eoten zian, tiña, gatza, gatza...
 -Salmuera.
 -Salmuera, hori nork iten zun?
 -Ba andriak, ura [zea ta]... Baiño gero ya, tiñak kendu in zian e, ya jelakin
 konserbatzen zan. Lehen-lehen, nola ez zeon jela, hainbeste jela, ba ordun,
 zea, salmuerakin.
 -Salmuera zer da gatzakin?
 -Bai, ura ta gatza, konserbatzeko, arraiya konserbatzeko, gatzakin.
 -Eta antxua jartzen zan salmueran?
 -Bai, bai, bai.
 -Tiñetan sartuta...
 -Bai, bai.
 -Eta gero hortik...
 -Eta geo, hortik hartu eta kaja etea, eta bete kaja, eta tablak jarri ta yasta.

26. Lan banaketa

- **Erref:** DON-054/035
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 01:16:09. **Bukatu:** 01:16:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

<p>Gizonek arrantza, eta emakumeek sareak. Emakumeak ez ziren ontzietara igotzen normalean.</p>

Transkripzioa

-Moillan zeintzuk zian gizonen lanak, eta zeintzuk emakumienak?
-Ba gizonak arrantza, eta guk sariak.
-Sariak?
-Ta yasta, klaro.
-Ta aparejua, gizonak?
-Aparejua gizonak, bai.
-Ta barkua garbitu ta holakuak?
-Bai, bai, hori dana gizonan gauza. Guk saria bakarrik.
-Ez ziñeten igotzen untzira, ezertara?
-Ez, ez, ez, ez. Egunen batian aberiren bat baldin bazun zea, sariak, zulo txiki bat, jeitsi eta han bertan ein, barkuan. Baiñan bestela ez.

27. "Partila"

- **Erref:** DON-054/037
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:17:00. **Bukatu:** 01:18:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:

"Partila". Irabazten zenaren erdia ontziarentzat zen, eta beste erdia gizonentzat. "Txakurrena". 20 arrobatik gora arrain hartuz gero, partitu egiten zen. Pixonerari ere bai.

28. "Ipurdinekoak"

- **Erref:** DON-054/039
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 01:19:39. **Bukatu:** 01:20:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:

Aitonari "Antxelmo ipurdi" deitzen zioten. "Ipurdinekoak" ziren beraiek. Izengoitiak. "Derrepentenekoak".

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com